

DONOSTIANN ENPRESAK SORTZEA BULTZATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK, DONOSTIAKO EKONOMIA BULTZATZEKO DONOSTIA UP! 2019 PLANA

Enpresa berriak sortzea enplegua sortzeko eta garapenerako gakoa izateaz gain, funtsezko elementua da gure ingurunearen berrikuntzarako, lehiakortasunerako, sustapen ekonomikorako eta gizarte-kohesiorako estrategiaren barnean.

Donostiako Ekonomia Bultzatzeko Donostia UP! 2019 Planetik eratorritako jarduera-ildoen barnean, hirian enpresa berriak sortzea bultzatzera zuzendutako zerbitzuak eta laguntza-programak sartzen dira. Halaber, berrikuntza bultzatzea funtsezko balioa da, eta enpresek eta ekintzaileek horren gainean eratu behar dituzte haien jarduerak.

2018ko Planean, enpresak sortzeko laguntzen ildo horrekin, 250 enpresa baino gehiagori eman zitzaizen laguntza, eta lortutako emaitzak norabide horretan jarraitzea eskatzen du.

2019ko laguntza-programak, enpresa berritzaileak eta/edo oinarri teknologikokoak sortzeko Ekin + programarekin batera, berrikuntza eta hirian enplegua sortzea bultzatzen laguntzen du.

1. ARTIKULUA. HELBURUA

Laguntza hauen xedea da norberaren kontura lanpostu berriak sortzen laguntzea, honako hauen bitartez:

A MODALITATEA: Enpresa berriak sortzea orokorrean.

B MODALITATEA: Enpresa berritzaile berriak sortzea, hiriari balioa emateko, Donostiako Sustapenak tokiko ekonomia-ehunarentzat eratzen dituen sektore estrategikoak garatzeko eta zeharka bultzatzeko estrategiarekin bat eginaz.

Deialdi honetan, kalean bertan establezimenduak irekitzeko eta jendeari arreta zuzena eskaintzeko lokal komertzialak eta/edo zerbitzuak alokatzeko gastuak ordaintzeko laguntzak sartzen dira.

Donostiako Ekonomia Bultzatzeko Donostia UP! 2019 Planeko beste zerbitzu eta programekin batera, laguntzen deialdi honetan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzen da, zailtasun handieneko taldeak lan-merkatuan sartzea errazteaz gain.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostiako Sustapenak laguntza hauetarako 300.000 euro jarriko ditu.

Kopuru hori aldatu ahal izango da Donostiako Sustapenak horrela erabakiz gero.

3. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

Laguntzaren pertsona onuraduna izango da laguntza emateko oinarri izan duen jarduera egingo duen pertsona edota laguntza ematea legezkotzeko egoeran aurkitzen dena, betiere Oinarri hauetan eta, espezifikoki, laguntza-mota bakoitzerako aipatutakoetan, ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Laguntzen pertsona onuradunak izateko aukera izango dute pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek edo pribatuek, estatukoek edo atzerrikoek nahiz aurrekoen pertsonalitate gabeko elkarteek, ordenamendu juridikoaren arabera behar bezala eraturakoek, Oinarri hauetan ezarritako baldintzak agertzen badira. Laguntza hauek ezingo dituzte eskuratu ondare-sozietateek, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 14. artikuluan definitutakoek.

Oinarri hauetan zehaztuko dira dagozkien laguntzak eskatzeko beharrezko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua; edonola ere, Diru-laguntzen Lege Orokorreko (aurrerantzean DLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da, ondorio hauetarako aplikagarritzat aitortzeagatik.

Ezingo zaie laguntza eman honako pertsona fisiko edo juridiko hauei:

- Zerga eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, indarrean diren xedapenek ezarritakoak, egunean ez dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.
- Ebazpen irmo baten bidez zehatuak izan diren pertsona fisiko edo juridikoak; hau da, diru-laguntzak edo laguntzak lortzeko aukera kendu zaienak, edo horretarako gaikuntza ematen ez zaien lege-debekuren batean daudenak, sexu-diskriminazioari lotutakoak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Gizon eta Emakumeen Berdintasunari buruzkoaren, seigarren xedapenean agindutakoaren arabera.
- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostiako Sustapenarekin zorrak dituztenak.
- Aurrez emandako laguntzak itzultzeke (guztiz edo zati batean) dituzten pertsonak, itzultzeke dagoen diru-kopurua bueltatu dela egiaztatzen ez den bitartean.

4. ARTIKULUA. DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ONURADUNEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Pertsona onuradunek deialdian parte hartzeko honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Laguntzaren xedeko jardueraren helbide fiskala Donostian kokatuta izatea. Pertsona fisikoen edo sozietate zibilen kasuan, helbide fiskal ezberdina onartuko da, betiere, Sustapenaren iritziz, jarduera Donostiako establezimendu batean egiten dela begien bistakoa bada.
- b) Pertsona juridikoen kasuan, jarraian aipatzen diren baldintza guztiak bete behar dituzte:
 1. Aktiboa 10 milioi eurotik beherakoa izatea edo eragiketen bolumena, Euskal Autonomia Erkidegorako Kontzertu Ekonomikoan definitutako moduan, 10 milioi euro baino gehiagokoa ez izatea.
 2. Plantillaren batez besteko kopurua 50 langilera ez iritea. Plantillaren batez besteko kalkulua egiteko, lanaldi osoko urteko langileak hartuko dira kontuan. Lanaldi partzialeko langileei erreparatuz, zenbaketa lan egindako orduen proportzionala izango da.
 3. Aurreko 1 eta 2 zenbakietan aurreikusitako baldintzaren bat betetzen ez duten enpresek ez izatea zuzenean edo zeharka ehuneko 25eko edo gehiagoko partaidetzarik.

Erakundea sozietate-talde bateko kide bada Merkataritza Kodeko 42. artikularen arabera, aurreko 1 eta 2 zenbakietan adierazitako kopuruetan talde horretako erakunde guztienak sartuko dira.

Aktibo osoa eta eragiketa-kopurua zenbatzeko, kontuan izango dira egindako ezabapenak, Merkataritza Kodeko 46. artikularen eta horren garapen-arauen aurreikusitakoari jarraiki.

Pertsona onuraduna izateko aukerarik ez dute izango:

- Irabazi-asmorik gabeko elkarteak.
- Ezingo dira onuradunak izan honako hauekiko lotura edo %25etik gorako partaidetza duten erakundeak: Sektore Publikoko erakundeak (horrela izango dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 3. artikularen barneko erakundeak; horren bitartez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), irabazi asmorik gabeko erakundeak, ondare-elkarteak eta/edo Elkargo Profesionalak.

- c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan hasierako alta, edo zentsu-aitorpenaren alta egokitzen denean, 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte egitea, bi datak barne.
- d) Ekonomia Jardueren Zergan, jarduera berean edo antzekoan matrikulatu ez izana, laguntza eskatzeko oinarritzat hartutako enpresa sortu aurreko sei hilabeteetan.
- e) Aurreko enpresa baten forma juridikoa soilik aldatuta sortutako enpresa berriak ez izatea. Hori dela-eta, ez duten etekin lortuko jarduera berria abian jarri aurreko sei hilabeteetan jardura berean edo antzekoan banaka edo sozietate gisa (partaidetza edozein izanda ere) titular bezala aritu diren sustatzaileak dituzten enpresa berriek.
- f) 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko denboraldian, bazkideren batek alta ematea Gizarte Segurantzari (Autonomoen Erregimena edo baliokidea).
- g) Laguntza lortzeko enpresa eratu aurretik, bazkideren batek egina izatea Donostiako Sustapenak aldizka eskaintzen dituen prestakuntzako saioak.
Dena den, Donostiako Sustapenak aipatu prestakuntza-saioak egitetik salbuetsi dezake, garatu beharreko negozio-eredua behar adina ezagutzea egiaztatuz gero ikasketa/prestakuntzaren edo esperientziaren bitartez edo Enpresa Plan bat izanda. Enpresa Planean gutxienez ondorengo edukia agertuko da: talde sustatzailearen identifikazioa, negozio-ideiaren deskribapena, merkatuaren analisisa, AMIA, balio-proposamena, estrategia komertziala, gastuak, inbertsioak, errentagarritasun eta finantzaketa atalasea.
- h) Enpresa berritzaile berriak sortzeko (B MODALITATEA) laguntzen eskaerei dagokienean, enpresa berritzailetzat joko da oinarri hauetako 10. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

5. ARTIKULUA. LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Laguntzaren zenbatekoa ondorengoa izango da:

- a) **A MODALITATEA: enpresa berriak sortzea oro har**

1.200 euroko oinarritzko laguntza lehen bazkidearentzat eta **500 euroko** laguntza ondorengoentzat. Edonola ere, Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Erregimenean (edo erregimen baliokidean) alta justifikatu beharko da.

Laguntzen zenbatekoa gehitu ahal izango da (igoera oinarrizko zenbatekoaren gainean egingo da) ekintzailea honako kasu hauetakoren batean aurkitzen bada:

1. Emakume ekintzaileak: oinarrizko zenbatekoaren **%20ko** igoera, bazkide bakoitzeko.

2. Lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituen talderen batekoa izatea: bazkide bakoitzeko %20ko igoera, ondorengo talderen batekoa baldin bada:

- 35 urtetik beherako gazteak.
- 45 urtetik gorako pertsonak.
- Iraupen luzeko pertsona langabeak. Iraupen luzeko langabeak izango dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille bezala inskribatuta daudenak Langile Autonomoen Erregimenean edo baliokidean alta eman aurreko 540 egunetan, betiere denboraldi horretan langabezia-egoeran egon badira gutxienez 360 egunetan.
- Gizarte-bazterketa arriskuan aurkitzen diren pertsonak. Gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonak izango dira, DSBEren titularrez gain, honako hauek:
 - 18 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako gazteak, Adingabeak Babesteko Institutuzioetatik datozenak.
 - Droga-mendekotasun arazoak edo bestelako mendekotasun-nahasmenduak dituzten pertsonak, errehabilitazio edo gizarteratze prozesuetan aurkitzen direnak.
 - Espetxeetan dauden pertsonak, baina enplegua izan dezaketenak, eta haien lan-harremana uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuko 1. artikuluan araututako lan-harreman bereziaren aplikazio-eremuan sartu gabe dutenak, edota baldintzapeko liberatuak eta giltzaperatu ohiak.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko eskumeneko agintariak baimendutako ordezkari ostatu-zentroetatik datozen pertsonak.
 - Desgaitasuna duten pertsonak (%33koa edo handiagoa).
 - Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak.

Adierazitako talde horietakoren batekoa izatea justifikatu ahal izateko, erreferentzia gisa hartuko da enpresan alta emandako eguna. Talde batekoa izatea ez da metagarria igoerari erreparatuta; soilik egoera bat justifikatuko da, enpresak hala hautatuta.

3. Familia-eremuan betebeharrak dituzten ekintzaileak:

Familia eta lana uztartzea errazte aldera, nahiz gizonen eta emakumeen arteko aukeraberdintasuna sustatzeko asmoarekin, enpleguan sartzeko edo irauteko nahiz familia-eremuko betebeharrak erabat dedikatzeko aukerei erreparatuta, **400 euroko** igoera proposatzen da bazkide bakoitzak jarraian agertzen den pertsonaren batekin bizi dela egiaztatzen badu:

- 0 eta 12 urte arteko seme-alabak edo adin txikikoak familia-harrera erregimenean (16 urte %33ko edo gehiagoko desgaitasuna izanez gero).
- Bigarren mailara bitarteko odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko senideak, mendekotasun-egoera egiaztatuta.

Bizikidetzak justifikatzeko, errolda ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta, bertan, adin txikioen eta/edo egiaztatutako mendekotasun-egoeran aurkitzen diren senitartekoen zerrenda ageriko da. Adin txikikoekin batera bizitzearen errolda-eskakizuna ez da aurkeztu beharrik izango banandutako, dibortziatutako edo deuseztasun kasuetan, zaintza partekatua bada; kasu horietan, adin txikioa zaintza duen pertsonarekin erroldatuta egongo da.

4. Donostian, kalean bertan eta herritarrei arreta zuzena eskaintzeko, lokal komertzialak eta/edo zerbitzu-lokalak dituzten enpresa berriak: laguntza gehitu ahal izango da jarduera ekonomikorako lokalen errentamendu-gastuen (alokairua) izenean:

- 2.000 euroko laguntza lokala auzo hauetan kokatzen bada: Altza (20.016), Bidebieta (20.017), Amara Berri (20.010 eta 20.011), Loiolako Erriberak (20.014), Loiola (20.014), Martutene (20.014 eta 20.115), Intxaurren (20.015) eta Egia (20.012),
- 1.000 euroko laguntza hiriaren gainerako lekuetan.

Pertsona onuradun bakoitzeko, ez da lokal komertzial eta/edo zerbitzu-lokal bat baino gehiagorentzako laguntzarik emango.

1, 2, 3 eta 4 igoerak metagarriak dira.

b) **B MODALITATEA: enpresa berritzaile berriak sortzea:**

3.000 euroko oinarrizko laguntza lehen bazkidearentzat eta **1.000 euroko oinarrizko** laguntza hurrengoentzat. Edonola ere, Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Erregimenean (edo erregimen baliokidean) alta justifikatu beharko da.

Kategoria honetako laguntzen zenbatekoa gehitu ahal izango da honako kasu hauetan, denak ere metagarriak izanik:

1. Donostiako Sustapenak definitutako sektore estrategikoekin lotutako enpresa: %10eko igoera honako hauekin loturiko enpresak badira:

- Donostiako Sustapenak sustatutako Klusterrak eta sektore estrategikoak (Donostia Smart, Donostia Moda, Donostia Surf City, Nekazaritzako Elikagaien Guztiona Klusterra, Merkataritza eta Ostalaritza).
- Bestelako sektore estrategikoak (Biozientziak, Industria aurreratua, IKT, 4.0, Materialak, Energia).

Enpresak hainbat sektoretan lan egiten badu ere, igoerari begira soilik horietako bat hartuko da kontuan.

Enpresa aipatutako zein sektore estrategikoren barnean sartzen den Donostiako Sustapenak erabakiko du jardueraren arabera.

2. Familia-eremuan betebeharrak dituzten ekintzaileak: 400 euroko igoera pertsona ekintzaile bakoitzeko, aurrean zehaztutako pertsonaren batekin bizi dela egiaztatzen badu eta aurreko 5.a) 3 puntuan ezarritakoa betetzen badu.

3. Donostian, kalean bertan eta herritarrei arreta zuzena eskaintzeko, lokal komertzialak eta/edo zerbitzu-lokalak dituzten enpresa berriak: aurreko 5.a) 4 puntuan ezarritakoaren arabera laguntzak.

1, 2 eta 3 igoerak metagarriak dira.

Aurreko laguntzak guztira, igoerak barne, **gehienez 10.000 eurokoak izango dira enpresa bakoitzeko.**

A MODALITATEKO eta B MODALITATEKO laguntzak bateraezinak dira.

6. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KONTZEPTUAK

Diru-laguntza izan dezakete enpresa lehen hilabetetan abian jartzearekin eta funtzionamenduan izatearekin lotutako gastuek, beharrezkoak direnek, eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta eman aurreko 2 hilabeteko denboraldiaren, edo zentsu-aitorpenaren altatik egokitutakoan, eta altaren ondorengo 12 hilabetera bitarteko denboraldiaren artean egindakoek; hala nola:

- Jarduera ekonomikoarekin loturiko inbertsioak. Ibilgetu materiala finantza-errentamendu bidez (leasing) eskuratuz gero, interesik gabeko kuotek izan dezakete diru-laguntza.

- Ibilgailuen kasuan, jarduera ekonomikoa garatzeko soilik erabiliko direla modu fedemailean frogatutakoek bakarrik.
- Jarduera ekonomikoarekin zerikusia duten higiezinak egokitzeko eta/edo birgaitzeko obrak.
- Enpresa eratzeko gastuak; hala nola, irekitzeko lizentziak, jarduera-lizentziak nahiz negozioa abian jartzeko derrigorrezkoak diren bestelako tasak.
- Patenteak, erabilgarritasun-ereduak, markak eta diseinu industrialak izapidetzetik eta lortzetik eratorritako gastuak.
- Gizarte Segurantzaren langile autonomoen erregimen berezian kotizazioa ordaintzearekin lotutako kuotak.
- Proiektuarekin zerikusia duten komunikazio-gastuak: publizitate-kanpainak, web orrien diseinua, sare sozialen diseinua,...
- Lehendik dauden enpresak eskuratzea hark garatutako jarduerarekin jarraitze aldera.
- Jarduera ekonomikoarekin loturiko higiezinaren errentamendu-gastuak (alokairuak).

Inola ere ez dute diru-laguntzarik izango honako gastu hauek:

- Produktu komertzialak eta/edo lehengaiak erostea, ondoren enpresak komertzializatzeko.
- Material suntsigarriak eta bulegoko materiala erostea.
- Hornidurak (argia, ura,...).
- Liburu-edukitzaitza eta betebeharrak fiskalekin edo eguneroko kontabilitate-betebeharrekin lotutako aholkularitza fiskala, lan-arlokoa, kontabilitatearena, juridikoa edo administratiboa.
- Soldatak eta lansariak.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.

Eta bereziki alokairuen kasuan, ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko ondorengoak:

- Fidantzak, gordailuak edo antzekoak, betebeharrak bat betetzea bermatzen dutenak.
- Bermeen gastuak edo antzekoak.
- Hirugarrenen aholkularitza eta bitartekaritza (higiezinaren agentziak,...).

7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZEKIN BATERA ARITZEA

Laguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako beste edozein Administrazioak edo erakunde publikok edo pribatuk, estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioarteko erakundeetakoek, emandako beste edozein diru-laguntzarekin, laguntzarekin, diru-sarrerarekin edo baliabiderek, horren inguruan beste diru-laguntzak arautzen dituen araudiak ezar dezakeena alde batera utzi gabe, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

- Oinarri hauetan ezarritako laguntzek 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 zenbakidun Araudian (EE) ezarritako "minimis" arauak errespetatuko dituzte, 2013ko abenduaren 24ko HAMABIAN argitaratuta, EE Funtzionamendu Itunaren 107 eta 108 artikulua Minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.
- Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera jasotako laguntzaren zenbatekoak ezingo du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, bakarka edo beste diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin elkartuta.

Nolanahi ere, laguntza hauek bateraezinak izango dira Donostiako Sustapenak 2018ko eta aurreko urteetarako kudeatu dituen enpresa-ekimen berritzaile berriak sortzeko, hazteko eta finkatzeko Ekin + programan jasotako laguntzekin.

8. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Laguntzen eskaerak aurkezteko epea gehienez bi hilabetekoa izango da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematen den egunetik zenbatzen hasita, edo zentsu-aitorpenaren alta egokitzen denetik, eta beti 2019ko abenduaren 31 bitarte. Alta oinarriak argitaratu aurretik eman bada, epea bi hilabetekoa izango da, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaerak telematikoki edo era presentzian aurkeztu ahal izango dira.

Eskaera telematikoak Donostiako Sustapenaren web orriaren bidez egingo dira (www.fomentosansebastian.eus).

Eskaera presentzialak Donostiako Sustapenean aurkeztuko dira, helbide honetan: Erregina Erregentea, 8, Victoria Eugenia Antzokia Eraikina, 20.003 Donostia.

Herritarrak artatzeko ordutegia Donostiako Sustapenaren web orrialdean adierazitakoa da.

Edozein informazio eskatzeko edo kontsultaren bat egiteko deitu 943.482800 telefonora edo idatzi fomentoss@donostia.eus helbidera. Gaia bezala hau adierazi: enpresa sortzeko laguntza.

Dagokion eskaera-inprimakiarekin batera, Oinarri hauetan eskatutako administrazio-dokumentazio guztia erantsiko da.

Laguntza ekonomiko hauek eskatzeko interesa duten enpresek edo erakundeek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute oro har:

Dokumentazio orokorra

- Eskaera-orria ("Eskaera" Eranskina).
- Enpresako sustatzaileen zerrenda, laguntzara aurkeztu direnena ("Pertsona sustatzaileak" Eranskina).
- Laguntza eskatzen duen pertsonaren edo erakundearen bankuko datuen alta-fitxa, dagokion banku-erakundeak zigilatuta ("Bankuko datuak" Eranskina).
- Eskatzailearen NANaren kopia, pertsona fisikoa bada.
- Pertsona juridikoa izanez gero, eskatzailearen IFKren kopia, eta, hala behar izanez gero, ahalduaren NANA.
- Pertsona juridikoa bada, eskritura edo eraketa-agiriak, Estatutuak edo sorrera-akta; bertan, beren jarduera erregulatzeko araudiak jasoko dira, behar bezala inskribatuta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan, zer-nolako pertsona juridikoa den kontuan hartuta. Berezko nortasun juridikorik gabeko Sozietate Zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilaturiko kontratu pribatua sartuko da.
- Eskaera sinatzen duen pertsona bat ez badator eskrituran edo eraketa-agirietan inskribaturikoekin, ahalordetze-eskritura ere entregatu beharko da, eskaera egiteko ahalmena egiaztatzearen.
- Laguntza eskatzen duen enpresak zerga-betebeharrak egunean izatea egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Laguntza eskatzen duen enpresak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren altaren kopia (Foru Ogasuneko 840 erdua), edo nekazaritza, mendeko abeltzaintza, baso eta arrantza jardueri dagokienez, errolda aitopeneko altaren kopia (Foru Ogasuneko 036 erdua).
- Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako jarduera ekonomikoen dokumentu eguneratua-historikoa, laguntza eskatzen duen enpresarena.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, laguntzaren eskatzaileak Udalarekin ez duela zorrik egiaztatzeko.
- Berrikuntza-irizpideen eta hiriarentzat dakarren ekarpen erantsiaren balorazioa ("Berrikuntza-irizpideen eta hiriarentzat dakarren ekarpen erantsiaren balorazioa" Eranskina), soilik Enpresa berritzaile berriak sortzeko laguntza eskuratu nahi dutenentzat (B MODALITATEA).
- Autonomoen Erregimenean edo erregimen baliokidean alta eman izanaren partearen kopia, laguntzara jotzen duen sustatzaile bakoitzarena.
- Laguntzara aurkeztu diren sustatzaile guztien NANaren kopia.

- 5.a artikuluan deskribatutako gutxietsitako talderen batekoa izatea justifikatzen duen dokumentazioa.
- Laguntzara aurkeztutako pertsona sustatzaile bakoitzak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Laguntzara aurkeztutako pertsona sustatzaile bakoitzak Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako jarduera ekonomikoen dokumentu eguneratua-historikoa, laguntza eskatzen duen sustatzaile bakoitzarena.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, laguntza eskatzen duen pertsona sustatzaile bakoitzak Udalarekin ez duela zorrik egiaztatzeko, edo, haren ordeztu, berariazko baimena Donostiako Sustapenak informazio hori Udaletik zuzenean eskuratu ahal izateko ("Pertsona sustatzaileak" Eranskinean sartua).
- Donostiako Sustapenak eskaintako prestakuntza egitetik ikasketak/prestakuntza direla-eta salbuetsia izan dela egiaztatu behar bada, titulu akademikoak aurkeztu beharko dira.
- Prestakuntza egitetik esperientzia dela-eta salbuetsia izan dela egiaztatu behar bada, lan-bizitza aurkeztu beharko da, erantzukizunpeko adierazpenarekin batera; azken horretan, zein enpresetan hartu duen esperientzia eta zer-nolako esperientzia hartu duen adieraziko da.
- Prestakuntza egitetik Enpresa Plana izateagatik salbuetsia izan dela egiaztatu behar bada, Enpresa Plana aurkeztu beharko da.
- Fakturen kopia eta horiek ordaindu izanaren frogagiria, 5. artikuluan ezarritakoaren arabera. (Agiri horiek eskaera egiteko unean edo justifikatzeko unean aurkeztu ahal izango dira).
- Gastuen eta ordainketen Aitorpena ("Gastuen eta ordainketen aitorpena" Eranskina).
- Beste enpresa batzuen ehuneko 25eko edo gehiagoko partaidetza zuzenean edo zeharka duten pertsona juridikoek "Enpresa parte-hartzailearen Erantzukizunpeko Adierazpena" Eranskina aurkeztu beharko dute, parte-hartzaileak behar bezala sinatua.

Alokairu-gastuak justifikatzeko, hauek aurkeztu beharko dira:

- Errentamendu-kontratua, bi aldeek behar bezala sinatua.
- Errentamenduaren izenean fakturen eta ordainketa-frogagirien kopia.

Familia-eremuan betebeharrak dituzten ekintzaileentzako laguntzen igoeren kasuan:

- Errola-ziurtagiria, adin txikikoekin eta/edo mendekotasun-egoeran aurkitzen diren senideekin bizi zarela egiaztatzen duena.

- Familia-ahaidetasunaren maila egiaztatzen duen dokumentazioa, eta, etengabeko familia-harrerari edo adoptatzeko helburuaren kasuan zaintzari dagokienean, horren inguruko ziurtagiria.
- Adin txikikoen kasuan, haien adina egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Mendekotasun-egoeran aurkitzen diren pertsoneri dagokienean, mendekotasun-ziurtagiria.

Pertsona onuradunak bere gain hartzen du egindako erantzukizuneko aitorten guztiak nahiz aurkeztutako gainerako dokumentazioa egiazkoak izatearen gaineko erantzukizuna.

Pertsona interesatuek, eskaera honen aurretik 2017ko, 2018ko edo 2019ko deialdiaren laguntza baterako Donostiako Sustapenaren aurrean aurkeztu badute dokumentazioa, ez dute berriro aurkeztu beharrik izango, indarrean egoten jarraitzen badu eta datuak ez badira aldatu.

9. ARTIKULUA. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostiako Sustapenak dokumentazio guztia berrikusi eta gero, eskaera guztiz bete gabe dagoela edo dokumenturen bat falta dela egiaztatzen bada, pertsona eskatzaileari eskatuko zaio hamar laneguneko epean, hutsegite hori konpontzeko edo nahitaezko dokumentuak gehitzeko. Horrela egiten ez badu, eskaera kanpoan utziko da, bestelako izapiderik gabe, eta, ondorioz, horren ebazpena emango da. Dokumentazio administratiboa nahiz laguntza-mota bakoitzeko dokumentazio espezifikoak zuzendu ahal izango da. Donostiako Sustapenak proiektuaren memoriari buruzko azalpenak eskatu ahal izango ditu, komenigarritzat jotzen badu.

Zuzentzeko eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egiteko erabilitako bide beretik aurkeztuko da (telematikoki edo presentzialki). Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko.

Laguntzak ematea edo ukatzea Donostiako Sustapenak berariaz emandako ebazpenaren bidez egingo da.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN IZAPIDEA ETA EBAZPENEA

Eskaerak erregistro-ordenaren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, harik eta laguntza bakoitzerako jarritako baliabide ekonomikoak agortu arte.

Eskatutako laguntza ebazteko epea bi hilabetekoa izango da eskaeraren erregistro-egunetik kontatzen hasita, epe horren barruan dokumentazioa zuzentzeko denboraldiak kontuan izan

gabe. Laguntza ematearen ebazpena ezarritako epean ez emateak ez du esan nahi laguntza emango denik.

Donostiako Sustapenak erabakiko du eskaera A MODALITATEKOA edo B MODALITATEKOA den, enpresak aurkeztutako informazioaren arabera.

Eskaera bat enpresa berritzaile berrien B MODALITATEAKOA den erabakitzeko, irizpide hauek jarraituko dira:

1. Enpresa eskatzaileak parte hartu izatea Donostiako Sustapenak potentzial altuko ekintzailletza bultzatzeko kudeatutako programaren batean (Yuzz - Explorer programa, ekintzailletza gaztea eta berritzailea bultzatzeko; Pop Up Commerce Programa, negozio-idea berritzaileak aztertzeko eta Ekin+ 2019ko deialdia) edo aurrerantzean kudea ditzakeenetan.
2. Enpresak gutxienez 25 puntu lortzea Donostiako Sustapenak ondorengo irizpideekin egingo duen balorazioan:

ENPRESA BERRITZAILEAREN BALORAZIOA	50
1. I+G+b eta TEKNOLOGIAREKIN DUEN LOTURA-MAILA	15
2. ENPRESA-BERRIKUNTZAREN MAILA ETA BIDERAGARRITASUNA	30
3. ENPLEGUA SORTZEA	5

Donostiako Sustapena harremanetan jarri ahal izango da 20 eta 24 puntu arteko puntuazioa izan duten proiektuak aurkeztu dituzten pertsonekin, proiektua behar bezala ulertzea egiaztatzeko.

Eskaera ebazteko, Donostiako Sustapenak aurkeztutako nahitaezko dokumentazioa berrikusiko du. Eskatu gabe aurkeztutako beste edozein dokumentazio ez da berrikusi beharrik izango laguntza ebazteko.

Laguntza ematea edo ukatzea Donostiako Sustapenak berriaz emandako ebazpenaren bidez egingo da.

Ebazpenen berri emango zaie eskatzaileei, eta pertsona onuradunen zerrenda argitaratu egingo da.

Deialdiaren inguruko jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira; hau da, eskaeran adierazitako helbide elektronikoaren bitartez. Onuradunak aldatu ahal izango du Donostiako Sustapenarekin komunikatzeko bidea. Horretarako, idatzia aurkeztu behar du Donostiako Sustapenaren Informaziorako Zerbitzu Zentraletan; hots, Erregina Erregentearen kalea 8, Victoria Eugenia Antzokia eraikina, 20.003 Donostia. Beraz, deialdiari buruzko jakinarazpenak posta arruntaz jasotzea eskatu behar du. Halaber, jakinarazpenaren helbidea adierazi behar da, eskaeran adierazitako enpresaren helbide bera ez bada.

Emandako ebazpenarekin desadostasuna izanez gero, alegazioak aurkeztu ahal izango dira gehienez ere hilabete bateko epean ebazpena emandako egunetik kontatzen hasita. Edonola ere, Donostiako Sustapenak erabakitakoa bete beharko da, eta, hala beharrez gero, bi aldeak Donostiako Epaitegien eta Auzitegien jurisdikzioaren mende geratuko dira.

11. ARTIKULUA. LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA ETA ORDAINTZEA

Diru-laguntza izan dezaketen gastu bezala onartuko dira oro har diruz lagundutako jardueraren izaerari ezbairik gabe erantzuten dioten eta Oinarri hauetan ezarritako epearen barruan egiten diren gastuak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratzeko-kostua inola ere ezingo da izan merkatuko balioa baino altuagoa.

Diru-laguntza izan dezaketen gastuei aplikatu ahal izango zaie, berariaz igorrita, DLOko 31. artikulua.

Laguntzak modu honetan justifikatu eta ordainduko dira:

Laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

Lehen ordainketa laguntzaren ebazpen-egunean egingo da, eta eskaera-unean justifikatutako gastuen zenbatekoa ordainduko da, emandako laguntzaren %50era bitarte gehienez.

Bigarren ordainketa enpresak alta ematen duen egunetik hasi (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta-eguna, edo zentsu-aitorpenaren alta-eguna dagokionean) eta handik 12 hilabetera egingo da, behin azken justifikazioa aurkeztuta. Justifikatutako gainerako zenbatekotik gehienez emandako laguntzara bitartekoa ordainduko da. Edonola ere, bigarren ordainketa egiteko, enpresak iraun egin beharko du jardueraren lehen 12 hilabetetan.

Azken justifikazioa aurkezteko epea gehienez hilabete batekoa izango da, enpresaren alta-egunetik 12 hilabete igarota (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta-eguna edo zentsu-aitorpenaren alta-eguna).

Epe horiek betetzen ez badira, ez da laguntzaren bigarren ordainketa egingo.

Laguntza justifikatzeko eta ordaintzeko ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du onuradunak:

- Eranskina: "Justifikazioa".
- Eranskina: "Pertsona sustatzaileak"
- Gastuen eta Ordainketen Aitorpena, Oinarri hauetako 5. artikulua araberara. ("Gastuen eta Ordainketen Aitorpena" Eranskina).
- Diru-laguntzaren xedeko gastuak egiaztatzen dituzten dokumentuak eta egindako ordainketen frogagiria, bi kasuetan eskaera-unean aurkeztu ez badira.
- Ogasunak emandako jarduera ekonomikoen dokumentua-historikoa, enpresa gutxienez 12 hilabeteko denboraldian mantendu dela egiaztatzeko, enpresaren alta-egunetik aurrera (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta-eguna edo zentsu aitorpenaren alta-eguna dagokionean).
- Laguntza eskatzen duen enpresak zerga-betebeharrak egunean izatea egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Laguntza eskatzen duen enpresak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Laguntza eskatzen duen enpresak Donostiako Udalarekin zorrik ez duela egiaztatzeko Donostiako Udalaren ziurtagiria, edo, horren lekuan, Donostiako Sustapenarentzat berariazko baimena informazio hori zuzenean Udalean bertan eskuratzeko ("Justifikazioa" Eranskinean sartua).
- Helburu bererako erakunde pribatuei edo publikoei orain arte eskatutako edo haiengandik jasotako gainerako laguntzen zinpeko deklarazioa ("Justifikazioa" Eranskinean sartua).
- Laguntza eskatzen duen pertsona sustatzaile bakoitzaren lan-bizitza, enpresan alta emandako egunetik 12 hilabete igarotakoan emandakoa (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta-eguna edo zentsu aitorpenaren alta-eguna dagokionean).
- Laguntza eskatzen duen sustatzaile bakoitzak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtagiri eguneratua, laguntza eskatzen duen sustatzaile bakoitzak betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko.
- Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzak Donostiako Udalarekin zorrik ez duela egiaztatzeko Donostiako Udalaren ziurtagiria, edo, horren lekuan, Donostiako

Sustapenarentzat berriazko baimena informazio hori zuzenean Udalean bertan eskuratzeko ("Pertsona Sustatzaileak" Eranskinean sartua).

Dokumentazioa telematikoki edo modu presentzian aurkeztu beharko da, eskaera egiteko erabilitako aurkezpen-bide bera erabilia. Helbide elektronikoz jasotako justifikazioak ez dira onartuko. Era berean, eranskin guztiak oso-osorik bete beharko dira.

12. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauen pertsona onuradunek DLOko 14. artikuluan jasotako betebeharrak orokorrak onartuko dituzte, ondorio hauetarako aplikatu baitaitezke. Betebeharrak hauek izango dira (adierazpen gisa eta mugatzaile izan gabe):

- a) Laguntza diruz lagundutako jardueretarako erabiltzea.
- b) Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa ezarritako modu eta denboraren arabera aurkeztea.
- c) Jasotako laguntzak aplikatzea justifikatzen duten dokumentuak jasotzea, egiaztatzea eta/edo ikuskatzeko jardueretarako, eta, edonola ere, aplikatzeko araudian ezarritako epearen barruan.
- d) Proiektuaren barneko jardueren gastu eta diru-sarrera guztiak kontabilizatzea.
- e) Kontabilitate-liburuak behar bezala burutzea, hori nahitaezkoa denean.
- f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea.
- g) Donostiako Sustapenari jakinaraztea edozein egoeraren aldaketa subjektibo edota objektibo, laguntzak emateko kontuan hartua izan bada.
- h) Donostiako Sustapenak emandako laguntzen inguruan funtzioak betetzerakoan eskatutako informazio guztia ematea.
- i) Donostiako Sustapenari ematea helburu bererako jasotako beste diru-laguntzen, laguntzen, sarreraren edo bestelako baliabideen berri.
- j) Donostiako Sustapenak jasotako laguntzaren inguruan dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzaren segimendua, e.a.).
- k) Laguntzaren xedeko eskaeran aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein gorabeheraren berri ematea Donostiako Sustapenari.
- l) Donostiako Sustapenarekin elkarlana egitea, hala behar izanez gero, finantza kontrolatzeko eta egiaztatzeko burutu ditzakeen jardueretan, eta eskatutako informazio eta dokumentazio guztia ematea.
- m) Laguntzaren barruko jardueretarako beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak edukitzea.
- n) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.

- o) Laguntza ekarri duten enpresa eta bazkideen alta mantentzea gutxienez 12 hilabeteko denboraldian, enpresari alta ematen zaion egunetik zenbatzen hasita (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta-eguna edo zentsu-aitorpenaren alta-eguna dagokionean), emandako laguntzaren bigarren ordainketa kobratu ahal izateko.
- p) Komunikazio-euskarrietan (web, sare sozialak, e-mailak, megafonia, e.a.), sustatzeko eta zabalitzeko materialen edizioan, antolatutako jardunaldietan eta ekitaldietan, e.a., EAEko hizkuntza ofizialak erabiltzea bermatzea (euskarari lehentasuna ematea).
Erakunde eskatzaileek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari, testuak itzultzeko nahiz zuzentzeko (itzulpenak gehienez 1.000 karaktere hilabete batean eta zuzenketak 9.000 karaktere), betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira.

13. ARTIKULUA. DIRUA ITZULTZEA

Onuradunak jasotako ekarpena itzuli beharko du, gehi diruaren legezko interesa —emandako zenbatekoak ordaintzen diren unetik aurrera—, honako edozein kasu hauetan:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren ez betetze larria eta errepikatua.
 - Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan ekarpena zertarako erabili den justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo behar adina ez justifikatzea.
 - Onuradunaren jardueraren gainean egin litezkeen haren baieztapen eta ikuskapen jardunekiko erresistentzia, aitzakia edo aurkakotasuna, kontabilitateko betebeharrak, erregistrokoak eta dokumentuak gordetzekoak barne direla; horren ondorioz ezinezkoa denean egiaztatzea jasotako ekarpenaren erabilera, finantzatutako jardueren egiazkotasuna eta erregularizazioa, edota xede bererako diru-laguntzak, bestelako laguntzak, sarrerak edo baliabideak batera izatea, horiek edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, estatukoetatik, Europar Batasunekoetatik nahiz nazioarteko erakundeetatik datozela ere.
 - Jardueraren gehiegizko finantzazioa bada, gastatu gabeko edo gehiegi finantzaturiko kantitatean.
- Ekarpena itzuli beharko da, Donostiako Sustapenak egiaztatuta eta onuradunari igorrita, jarraian deskribaturiko baldintzetan, Oinarri hauetan ezarritako kausaren bat gertatzen bada.

Dirua itzuli beharko da laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean, Donostiako Sustapenak onuradunari artikulua honetan dirua itzultzeko aurreikusitako kausaren bat dagoela burofaxez bidaltzen dionetik zenbatzen hasita.

Itzultzeko aurrean aipatutako arrazoiren bat gertatuz gero, ordaintzeko legezkiokkeen kopuruak kobratzeko eskubidea galduko du onuradunak.

14. ARTIKULUA. NORBERAREN DATUAK BABESTEA

Datuak babesteko indarrean den araudian ezarritakoaren arabera, Oinarri hauetan araututako laguntzak eskatu dituen eskatzaileari jakinarazten zaio dagokion eskaeraren bidez emandako datu pertsonalak nahiz beste edozein dokumentazio, laguntzak izapidetzerakoan eta/edo horiek eman eta gero kudeatzerakoan emandakoak, Donostiako Udalaren datu-fitxategi batean sartuko direla, Donostiako Udalak tratatzeko, Tratamenduaren arduradun gisa, eta Donostiako Sustapenak kudeatzeko, tratamenduaren enkargatu gisa. Tratamenduaren helburua izango da eskaera kudeatzea eta aipatu laguntzak izapidetzea.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2016ko apirilaren 27an emandako 2016/679 Erregelamenduko (EB) 6.1.e) artikulua da, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienean (DBEO): tratamendua beharrezkoa da interes publikoan edo tratamenduaren erantzuleari emandako botere publikoak erabiltzerakoan egindako misioa betetzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeena; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarrien ingurukoa; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzen Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo dagokien eskaera-inprimaketan horrela adierazitakoan, datu pertsonalen inguruan eskatutako informazioa aurkeztea derrigorrezkoa izango da, eta informazio hori ematen ez bada edo datu okerrak ematen badira, eskaera ezingo da kudeatu.

Datuak helburua betetzeko beharrezko denboran kontserbatuko dira (helburu horretarako bilduko dira) eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik eratorri daitezkeen erantzukizunak zehazteko.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak estatuko edo estatuz gaindiko erakundeei eman ahal izango zaizkie, laguntza horiek batera finantzatzen badituzte eta/edo Donostiako Sustapenarekin horien kudeaketan lan egiten badute, hori beharrezkoa denean eta emakida kudeatzeko soilik.

Era berean, jakinarazten dugu laguntzak ematearekin onuradunaren identifikazio-datuak komunikatu edo eman egingo direla; alegia, datu horiek, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostiako Sustapenaren web orrialdean nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, azken kasu horretan soilik emandako laguntza 3.000 eurotik gorakoa bada, edo, zenbatekoa kontuan hartu gabe, horrela eskatzen bada.

Pertsona kaltetuek datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko edota datuak babesteko indarrean den araudian jasotako bestelakoetarako eskubideak erabili ahal izango dituzte, hala badagokie. Horretarako, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzura jo behar dute: Ijentea kalea 1, 20003 Donostia.

Eskubideak erabiltzerakoan pertsona behar bezala artatu ez bada, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Agentzian. Helbidea: Beato Tomás de Zumárraga kalea, 71 – 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz. Dena den, lehen instantzian, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Donostiako Delegatuaren aurrean: dbo@donostia.eus.

Ondorio horietarako, adierazi, dagokion eskaera aurkeztearekin, eskatzaileak espresuki baimentzen duela aurreko paragrafoetan azaldutakoaren ondorioz egin beharreko komunikazioak edo lagapenak egitea.

15. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartzea eta onartzea

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Interesatuek eskaera aurkezteak Oinarriak erabat onartzen dituztela esan nahi du.

Erantzukizunetik salbuestea

Pertsona onuraduna izango da laguntzaren barruko jarduera egin aurretik edo ondoren edota ondorioz gerta daitezkeen kalte personalen eta/edo materialen erantzule bakarra; beraz, Donostiako Sustapenak ez du izango kontzeptu horien gaineko erantzukizun bakar bat ere.

16. ARTIKULUA. ERREGIMEN JURIDIKOA

Emango diren laguntzak Oinarri hauetan jasotako arauak eta, gehigarri gisa, DLOan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu (DLOaren Erregelamendua onartzen da; aurrerantzean DLOE) bidez onartutako Garapen Erregelamenduan jasotako arauak eraenduko dituzte, DLO horretan jasotako kudeaketa-printzipioei eta 20. artikuluan aipatutako informazio-arlokoiei dagokienean soilik, hori guztia bigarren paragrafoko 3.2 artikuluari jarraiki (araua aplikatzea zehazten duena).

Aipatu DLO eta DLOE soilik aplikatuko dira Oinarri hauek legezko testu horietara berariaz igorritakoan.

Donostian, 2019ko apirilaren 29an



Ernesto Gasco
Donostiako Sustapena, SAko lehendakariordea